

LGBTI+ udal-diagnostikoak



HIRUKI LARROXA

Hiruki Larroxan paradoxa deseroso bat bizi dugu aktibista transfeminista profesionalizatu gisa. Udalei LGBTI+ udal-diagnostikoak egiten laguntzen diegu, eta, aldi berean, geure buruari galdetzen diogu ea ekoizten dugun hori benetan eraldaketa-tresna bat den, edo erakundeen irudia blindatzeko mekanismo sofistikatua. Eta, benetan, galdera ez da teknikoa, politikoa baizik.

LGBTI+ diagnostikoak behar material errealetik (eta identitariotik) sortzen dira. Alegia, indarkeriari lotutako bizipenak jaso, diskriminazioak identifikatu, zerbitzu publikoetan gabeziak hauteman eta, azkenik, politika publikoak diseinatu. Eta argi dugu lehen "argazki" hori gabe eskubide asko ez liratekeela aitortuak izango. Baina arazoa sortzen da diagnostikoa erakunde publikoa legitimatzen duen tramite bihurtzen denean, LGBTI+ pertsonen babeserako tresna eraldatzaile beharrean.

Izan ere, maiz ondorengo sekuentzia ikusten dugu. Udalak diagnostikoa egitea eskatu, emaitzen azken dokumentua prentsurrekoan aurkeztu, "dagoeneko diagnostikoa duela" iragarri, drag artistak edo queer adituak kontratatu diagnostikoa plaza sinboliko batean sozializatzeko, eta ondoren, karpeta administratibo batean artxibatu. Horrela, aniztasuna erreputazio-kapital bihurtzen da (logika alderdikoietan, noski). Eta formalki betetzen den prozesua bada ere, gerora ez da askotan

aurrekontu lehenetsun bakar bat ere aldatzen, edo ez da erakunde publikoaren barne kultura zalantzan jartzen.

Hor agertzen den tentsioak gu interpelatzen gaitu profesional gisa. Hortik gure galdera. Kutsu estetiko-kosmetikoa duten identitate-politikak sortzen laguntzen ari gara, ala benetan politika publiko eraldatzaile eta errealak diseinatzen laguntzen?

Ikuspegi identitario hutsak behar espezifikoa zerrendatu eta neurri sektorialak proposatzen ditu. Eraldatzailea denak, ordea, udalerrriaren eredia bera galdekatzen du: nork okupatzen duen espazio publikoa, zer iruditeria darabiltzaten eskoletan, nola banatzen diren baliabideak eta zer indarkeria onartzen diren normaltasun zisheterosexualaren izenean.

Gakoa ez baitago diagnostikoan bakarrik, prozesuaren ondorengo urrats eta erabakietan baizik. Eta, argiki, boterea birbanatzen ez duen diagnostikoa txosten bat besterik ez da. Aldiz, praktika instituzionalak eraldatu eta banderez haragoko egiturazko desberdintasunak lantzen dituen, eraldaketa-palanka bihur daiteke.

Identitate-politikak beharrezko lehen urratsa izan dira, bai. Baina, egun, erronka da udal-diagnostikoak aitortza sinbolikoan ez geratzea, eta desberdintasuna eragiten duten logikak desagertzea ausartzea. Bestela, inklusioa apaingarria izango da. Eta justizia, hitz hutsa. ●

Hondora iristeko modu bat

CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Duela hilabete batzuk, Laura Ferrero idazlearen zutabe bat zabaldu zen han eta hemen. Maitasunaren definizioa ematen zuen bertan: maitasuna da zure bila etor daitezene. Burutara etorri zait nire lehengusueta-ko bat ikastolako autobuseko geltokira etorri zen aldi hura. Auto urdin batean zegoen, nire zain. Nire lehengusuak denak ziren ni baino zaharragoak, eta erdizka jabetzen nintzen egiten zituzten gauza batzuk ez zeudela ongi ikusiak, edo araez kanpokoak zirela. Nire baitako sekretua zen hura.

Zain nago orain ere, Madril erdialdeko liburu denda batean. Esku artean

daukat Pol Guasch-en liburu bat, idazleak bere aitaren suizidioari buruz idatzitakoa. Lerro batean bi esaldi besterik ez daude, deigarriak egin zaizkidanak: *Zain egon. Zure zain egongo direla uste izatea*. Zalantzan egon naiz liburua erosi ala ez. Ez dakit heriotzari buruzkoa delako liburua itxi eta apalategian utzi, edota hotelera eramane maitasunari zein adiskidetasunari buruzkoa dela ulertu nahi izan dudalako kontrazala irakurri ta. Maitasuna beti gailentzen da, ordea. *Zain egotea bada hondora iristeko modu bat*. Badira esaldi bakar batengatik hondamendi batetik salbatuko nituzkeen liburuak. ●